

**21/2003 FORU ARAUA,
abenduaren 19koa,
Gipuzkoako Lurralde
Historikoko Toki
Erakundeen Aurrekontuei
buruzkoa.**

(GAO: 2003-12-30)

HITZAURREA

Foru arau honek ekonomi jarduera bizkor eta eraginkorraren beharrianen arabera aurrekontu, kontabilitate eta kontrolerako eremua ezartzen du Herrialde Historikoko toki administrazioentzat, eta aurrekontuen prozeduran eta kontabilitate publikoari buruzko arloan Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onetsitako irizpide homogenoak aplikatzea errazten die.

Urteko aurrekontua toki administrazioaren zuzentegitarauaren adierazpena da eta bertan haren organismo autonomoen eta sozietate publikoen aurrekontuak sartzen dira (sozietate publikoak dira sozietatearen kapitalaren edo fondoaren %50 baino gehiagoko partaidetza dutenak).

Foru arau honek ez du definitu aurrekontu eredu bakar eta itxia; aitzitik, nahikoa malgua da eta aplikatu daitekeen arautegiaren zati handi bat erakunde bakoitzak, autonomia osoz, urtero onesten duen Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak definitzen du, agiri hori aurrekontu kontrolaren sistemaren giltzarri bihurtuz. Nolanahi ere, kontrol sistema osoa arautu da, Aurrekontuak Gauzatzeko Araua ez dagoenerako komeni delakoan.

Aurrekontua osatzen duen funtsezko beste agiri ekonomiko bat Ekonomia-Finantzazko Txostena da; txosten horretan aurrekontua orekatuta dagoen aztertzen da, hots, sarrerak aurreikusitako gastuei aurre egiteko beste direnez. Osagarri gisa, geroagoko ekitaldietarako baimentzen diren gastuei (konpromiso- kredituak) aurre egiteko

**NORMA FORAL 21/2003, de
19 de diciembre,
Presupuestaria de las
Entidades Locales del
Territorio Histórico de
Gipuzkoa.**

(BOG: 30-12-2003)

PREÁMBULO

La presente Norma Foral establece para las Administraciones Locales del Territorio Histórico un marco presupuestario, contable y de control acorde con las necesidades de una actividad económica ágil y eficiente, facilitándoles la aplicación de criterios homogéneos en materia de procedimiento presupuestario y contabilidad pública, aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

El Presupuesto anual, entendido como expresión del programa directivo de la Administración Local, engloba los de los Organismos Autónomos y Sociedades Públicas (definidas como aquéllas en que existe una participación superior al 50% del capital o fondo social).

La Norma no define un modelo presupuestario único y cerrado, sino que procura una cierta flexibilidad, remitiendo gran parte de la regulación a la norma de ejecución presupuestaria anual que cada entidad apruebe con total autonomía, documento que se convierte en la pieza maestra del sistema de control presupuestario. En todo caso, se ha considerado conveniente regular un sistema de control completo para suplir los supuestos de ausencia de Norma de ejecución presupuestaria.

Otro documento económico esencial que integra el Presupuesto es el Informe Económico-Financiero, que analiza su efectiva nivelación, es decir, que los ingresos sean realmente suficientes para hacer frente a los gastos previstos. Complementariamente, analizará la suficiencia de la financiación para atender a los gastos que se autorizan realizar en ejercicios

finantzaketa nahikoa den aztertzen da, eta horrela epe ertaineko ekonomi plangintzarako funtsezko elementua sartzen da.

Programa taldea, beherengo mailan baino ez bada ere, administrazio guztietan jarduketan programakako aurrekontua prestatu beharri emandako erantzuna da. Programa talde bakoitza ekitaldian lortu beharreko helburuak eta jarduera hori bideratuko duten ekintza zehatzak definituta dituen aurrekontuko programakako sailkapenaren multzoa da. Aurrekontu programaren kontzeptu zurrunaren aldean, programa taldea orokorragoa da eta hurbileko jarduerak hartzen ditu bere barruan eta beraren bidez udalerrri handiek bideak zabalik dituzte programakako benetako aurrekontuak garatzeko.

Aurrekontua, kontrolerako tresna izateari utzi gabe, nahikoa malgua izan behar da ekitaldian zehar behar diren moldaketak betekizun formalistegiekin ez eragozteko. Lehen mailan, hori gastuetarako administrazio bakoitzak zuzen kontabilizatzeari kalte egin gabe defini dezakeen kredituen lotura maila liberalizatuz lortu da. Gainera, kredituak aldatzeko sistema bizkorra ezarri da eta jendaurreko informazioaren betekizunak -beti gelditasunaren eta frogatu gabeko lan eranskarriaren iturri izan direnak- ekonomiaren aldetik nabariak diren kasuetarako bakarrik gorde dira. Ez dago, horretan, kontrolaren kalitatearen galerarik; izan ere Kontu Orokorrak urteko ekonomi datu guztiak jendaurreratzen ditu eta bai udalak bai hiritarrek egindako jardueraren azken balorazioa egiteko oinarritzko agiria da.

Honela, eta beti ere administrazio bakoitzaren autoerregulazioari lotuta, aurrekontu-aplikazioen arteko kreditu-transferentziak, sarrera berezietarako kreditu-gaikuntzak eta aurreko ekitaldietako kredituen txertaketak ez dira argitaratuko. Gainerako aldaketetarako, kreditu erantsi gisa definituta daudenetarako, antzeko prozedura bati ekiteko bidea ematen da zenbatekoak txikiak direnerako.

Kontuhartze-kontrola Arauak proposatzen du, ohiko *a priori* lege kontrola gainditzeko duen

futuros (créditos de compromiso), introduciendo un elemento esencial de planificación económica a medio plazo.

El concepto de Grupo de Programa es la respuesta a la necesidad de elaborar, siquiera a nivel mínimo, un Presupuesto por programas de actuación en todas las Administraciones. Cada grupo de programa es un bloque de la clasificación presupuestaria por programas para el que se definen los objetivos a conseguir en el ejercicio y las acciones concretas que van a instrumentar dicha actividad. A diferencia del concepto estricto de programa presupuestario, el grupo de programa tiene un carácter más genérico y englobará diversas actividades próximas, quedando abierto el camino para que los grandes municipios desarrollen auténticos presupuestos por programas.

El Presupuesto, sin perder su carácter de instrumento de control, debe ser lo bastante flexible para no bloquear con requisitos excesivamente formalistas las sucesivas adaptaciones que a lo largo del ejercicio resulten necesarias. En un primer nivel, esto se ha conseguido liberalizando el nivel de vinculación de los créditos asignados para gastos, que cada Administración puede definir sin perjuicio de su correcta contabilización. Además, se establece un sistema ágil de modificación de créditos, reservando los requisitos de información pública que siempre habían constituido un motivo de lentitud y trabajo adicional poco justificado para los casos económicamente relevantes. No existe en ello una pérdida de calidad de control, ya que la Cuenta General supone la rendición pública de todos los datos económicos anuales, y es el documento sobre el que debe realizarse la valoración final de la actividad realizada, tanto por la propia Corporación como por los ciudadanos.

Así, y siempre sujeto a la autorregulación que cada Administración realice, no serán objeto de publicación las transferencias de créditos entre aplicaciones presupuestarias, las habilitaciones de créditos por realización de ingresos específicos, ni las incorporaciones de créditos de ejercicios anteriores. Para el resto de modificaciones, definidas bajo el concepto de créditos adicionales, se posibilita la adopción de un procedimiento similar en el caso de importes poco relevantes.

El control interventor es propuesto por la Norma desde una óptica que trasciende al

ikuspegitik, administrazio egintzen ekonomi zentzutasunari buruzko informazioa eta *a posteriori* egin beharreko lege, ekonomia, finantza eta antolaketa kontrolen hedapena sartuz. Honela, funtzio publikoaren barne auditoretzaren ideia sartu da, erabakiak hartzen oso lagungarria izango delakoan.

Azkenik, foru agindu honetan ezarri da aurrekontu egiturari eta kontuen planari dagokienez Euskadiko gainerako Administrazioekin homogenotuta garatuko dela; horrela, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko Legean finkatutako asmoa beteko da: informazioaren ondoretarako, euskal alor publiko osoaren bateratzea ahalbidetzen duen eredua lortzea.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru arau hau Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan aplikatuko zaie toki erakundeei eta beraien organismo autonomoei eta beraien menpeko sozietate publikoei.

Halaber, udalerriaz beherako eremuko erakundeei ere aplikatuko zaie, beraien berezitasunak kontuan hartuta.

Aurrekontu eta kontabilitate araubideari dagozkionez, toki erakundeen sozietate publikoak dira sozietatearen kapitalaren edo fondoaren %50 baino gehiago halako batek duenekoak.

2. artikulua. Jarduketa publikoaren eredua.

Toki erakundeei euren ogasunaren berenezko arloetan jardungo dute, legezkotasunaren, objektibotasunaren, ekonomiaren, eraginkortasunaren, kontrolaren, kutxa batasunaren eta menpeko organismo eta erakundeen arteko koordinazioaren abiaburuen arabera.

I. TITULUA

clásico control a priori de legalidad, incluyendo la información sobre la razonabilidad económica de los actos administrativos y la extensión de controles a posteriori de tipo legal, económico, financiero u organizativo. Se introduce así la idea de auditoría interna en función pública, como apoyo altamente conveniente para la adopción de decisiones.

La presente Norma Foral, por último, prevé su desarrollo, en lo referente a la estructura presupuestaria y plan de cuentas, de un modo homogeneizado con las restantes Administraciones de Euskadi, cumpliendo la voluntad de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos de conseguir un modelo que posibilite la consolidación, a efectos informativos, de todo el sector público vasco.

TITULO PRELIMINAR

Artículo 1. Ámbito de aplicación.

La presente Norma Foral se aplicará en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa a las entidades locales, y sus organismos autónomos, y a las sociedades públicas de ellas dependientes.

Asimismo, será de aplicación teniendo en cuenta sus especificaciones a las entidades de ámbito inferior al municipio.

Se consideran sociedades públicas de las entidades locales a efectos de su régimen presupuestario y contable, a aquéllas en las que la entidad participa en proporción superior al 50% de su capital o fondo social.

Artículo 2. Modelo de actuación pública.

Las entidades locales actuarán en las materias propias de sus Haciendas respectivas conforme a los principios de legalidad, objetividad, economía, eficacia, control, unidad de caja y coordinación entre sus órganos y entidades.

TITULO I

AURREKONTU OROKORRAK

I. KAPITULUA

Aurrekontuen definizioa, indarraldia eta abiaburuak

3. artikulua. Definizioa eta integrazioa.

1.- Aurrekontu orokorrak toki erakundeek ekitaldi ekonomiko eta aurrekontu ekitaldi bakoitzean egin beharreko jardura ekonomikoren zuzentegitarauko erabakien adierazpen formalak dira, finantzen eta kontabilitatearen eremuan.

2.- Aurrekontu orokorrak, gainera, toki erakundeen baliabideen administrazio zuzenaren kontrolerako tresna ere badira.

3.- Aurrekontu orokorretan biltzen dira entitatearen beraren aurrekontuak, haren organismo autonomo eta sozietate publiko enpresarialenak, haren menpeko sozietate publikoenak, eta entitateari atxi kitako par tzuergoenak, azken kasu horretan baldin eta haien egin tzen gainean erabaki tzeko ahalmena, zuzenean edo zeharka, toki entitatearena bada. Entitateari atxi kita dauden gainerako par tzuergoen aurrekontuak informazio ondorioetarako baino ez dira jasoko aurrekontu orokorretan.

4. artikulua. Aurrekontuen indarraldia.

Ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontu-ekitaldia bat etorriko da egutegiko urtearekin.

5. artikulua. Aurrekontu abiaburuak.

Aurrekontu orokorrak abiaburu hauen arabera prestatu behar dira:

1.- Finantzen oreka: aurrekontu bakoitzari dagokionez, sarreraren zenbatekoa gastuen zenbatekoa estaltzeko beste izan behar da.

2.- Orokortasuna: aurrekontuetan likidatu beharreko eta aintzat hartu beharreko eskubide eta betebeharrak guztiak agertu behar dira,

LOS PRESUPUESTOS GENERALES

CAPITULO I

Definición, vigencia y principios presupuestarios

Artículo 3. Definición e integración.

1.- Los Presupuestos Generales son la expresión formal documental, en términos financieros y contables, del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por las entidades locales en cada ejercicio económico y presupuestario.

2.- Los Presupuestos Generales constituyen, a su vez, el instrumento de control de la correcta administración de los recursos de la entidad local.

3.- Los presupuestos generales están integrados por los presupuestos de la propia entidad, los de sus organismos autónomos y entidades públicas empresariales, los de las sociedades públicas de ellos dependientes y los de los consorcios adscritos cuyos actos estén sujetos directa o indirectamente al poder de decisión de la entidad local. Los presupuestos del resto de los consorcios adscritos a la entidad, acompañarán, a efectos informativos, a los presupuestos generales.

Artículo 4. Vigencia presupuestaria.

El ejercicio económico o presupuestario coincidirá con el año natural.

Artículo 5. Principios presupuestarios.

Los Presupuestos Generales se confeccionarán con respecto a los siguientes principios:

1.- Equilibrio financiero: de modo que, con respecto a cada uno de los presupuestos, la totalidad de los ingresos cubra el importe de los gastos.

2.- Universalidad: los presupuestos comprenderán todos los derechos y obligaciones, sin excepción alguna, que en cada

hurrenez hurren, inolako salbuespenik gabe.

Eskubide edo betebeharrak ekonomikoak sortzen dituzten eragiketa guztiek aurrekontuan agertarazi behar dira. Aurreikusitako gabeko eragiketak aurrekontuaren baterazpidearen barruan erregistratuko dira, kasuan-kasuan aplikatu beharreko arauari lotuz.

3.- Lotura eza: toki erakundeak eta haien organismo autonomo eta sozietate publikoen baliabideak beraien betebeharrak guztietarako erabiliko dira; helburu jakinetarako xedatuta daudenak izan ezik.

4.- Osotasuna: likidatutako eskubideak eta aintzatetsitako betebeharrak oso-osorik aplikatuko zaizkie aurrekontuei; betebeharrak ezin asetu izango dira likidatu beharreko eskubideak edo dagoeneko sartuta daudenak gutxitzuz, berariazko legezko baimena eman ezean. Aurrekotik salbuetsita daude auzitegi edo agintaritzak eskudunek bidegabetzat jotzen dituzten sarreraren itzulketak.

II. KAPITULUA

Aurrekontu orokorren edukia

6. artikulua. Edukia.

1.- Toki entitateen eta haren organismo autonomoen eta, egonez gero, partzergoak aurrekontu bakoitzak atal Hajei eduki behar ditu:

a) Ekitaldian zehar likidatutako diren eskubide ekonomikoak zenbatesten dituen sarreraren egoera-orria.

b) Bai ordainketa obligazioak eta bai konpromisoak betetzeko behar diren kredituei buruzko gastuen egoera-orria.

c) Programa taldeen deskripzio taulak, 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Aurrekontuaren edukia azal tzen duen memoria, aurrekoaren aldean dituen aldaketak nagusiak eta aurrekontua prestatzeko

caso prevea liquidar y sea necesario atender, respectivamente.

Toda operación de la que se deriven derechos u obligaciones de naturaleza económica tendrá el debido reflejo en el presupuesto respectivo. Las operaciones no previstas serán registradas dentro del proceso de ejecución del presupuesto de acuerdo con las normas aplicables en cada caso.

3.- No afectación: los recursos de las entidades locales y de cada uno de sus Organismos Autónomos y Sociedades Públicas se destinarán a satisfacer el conjunto de sus respectivas obligaciones, salvo en el caso de ingresos específicos afectados a fines determinados.

4.- Integridad: los derechos liquidados y las obligaciones reconocidas se aplicarán a los presupuestos por su importe íntegro, no pudiéndose atender obligaciones mediante minoración de los derechos a liquidar o ya ingresados, salvo autorización legal expresa. Se exceptúan de los anteriores las devoluciones de ingresos que se declaren indebidos por Tribunal o Autoridad competente.

CAPITULO II

Contenido de los presupuestos generales

Artículo 6. Contenido.

1.- Cada uno de los presupuestos de las entidades locales y de sus organismos autónomos y consorcios, en su caso, contendrá:

a) Un estado de ingresos estimativo de los distintos derechos económicos a liquidar durante el ejercicio.

b) Un estado de gastos comprensivo de los créditos necesarios para atender el cumplimiento de las respectivas obligaciones, tanto de pago como de compromiso.

c) Cuadros descriptivos de grupos de programas, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12.2.

d) Una memoria explicativa del contenido del presupuesto y de las principales modificaciones que presente en relación con el anterior, así

erabilitako irizpideak ere jaso behar dituen.

e) Onartu eta erabili diren konpromiso kredituen eranskina. Bertan urteka banakatuta adierazi behar da zer konpromiso kreditu dituen erabilita entitateak aurrekontua aurkeztzen den egunean; likidatu gabeko aurrekontuetan, data horretan indarrean dauden kontsignazio guztiak agertu behar dira.

f) Ekitaldian zehar egingo diren inber tsioen eranskina, Lurzoruaren Ondare Publikokoak eta gainerakoak bereizita.

g) Transferentzia eta diru-laguntza arrunten eta kapitalekoen eranskina, non zehaztuko baita kontzeptu horiengatik zer gastu aurreikusten diren eta diru-laguntzak emateko araudia eta prozedura zein diren.

h) Zorpetzeari buruzko eranskina, aurrekontu ekitaldiaren hasieran eta amaieran entitateari aurreikusten zaion zor finantzarioa jasoko duena, aurreikusitako interesen aldaketak eta ordainketak ere zehaztuta.

i) Langileen eranskina, entitatearen aurrekontu plantilla osatzen duten lanpostuen zerrenda jaso behar duena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean eta hura gara tzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2.- Entitate publiko enpresarialen, partzuergoen (hala badagokio), eta sozietate publikoen aurrekontuek agiri hauek eduki behar dituzte:

a) Aurreikusitako galera-irabazien kontua.

b) Aurreikusitako balantzea.

c) Ondare garbian aurreikusitako aldaketen egoera-orria.

d) Aurreikusitako kontuak eta egoera-orriak azaltzen dituen memoria, aurreko ekitaldikoekin erkatuta dituzten aldaketak eta haiek prestatzeko erabilitako irizpideak ere jaso behar dituen. Orobat, bertan jasoko dira geroko ekitaldietan eragina duten konpromiso ekonomikoak.

e) Transferentzia eta diru-laguntza arrunten eta kapitalekoen eranskina, non zehaztuko baita

como de los criterios adoptados para su elaboración.

e) Un anexo de créditos de compromiso aprobados y utilizados, que recogerá, diferenciados para los diversos años a que correspondan, los que con este carácter tenga utilizados la entidad en la fecha de presentación del Presupuesto; para los presupuestos no liquidados, deberá figurar la totalidad de las consignaciones vigentes en la misma fecha.

f) Un anexo de las inversiones a realizar durante el ejercicio, diferenciando las referidas al Patrimonio Público del Suelo y el resto.

g) Un anexo de transferencias y subvenciones corrientes y de capital, detallando los gastos por estos capítulos previstos en el presupuesto, así como la regulación aplicable y el procedimiento de concesión.

h) Un anexo de endeudamiento, con el nivel previsto de deuda financiera de la entidad al inicio y fin del ejercicio presupuestario, con detalle de las variaciones y pagos de intereses previstos.

i) Un anexo de personal, con la relación de los puestos que integren la plantilla presupuestaria de la entidad elaborado de acuerdo con la Ley de la Función Pública Vasca y disposiciones que la desarrollen.

2.- Los presupuestos de las entidades públicas empresariales, de los consorcios, en su caso, y de las sociedades públicas incluirán, los siguientes documentos:

a) La cuenta de pérdidas y ganancias previsional.

b) El balance previsional.

c) El estado previsional de cambios en el patrimonio neto.

d) Memoria explicativa de los estados y cuentas previsionales y de las modificaciones que presenten en relación con los del ejercicio anterior, así como los criterios utilizados para su elaboración. Igualmente se informará sobre los compromisos económicos que tengan efectos en ejercicios futuros.

e) Un anexo de transferencias y subvenciones, corrientes y de capital, detallando los gastos por

kontzeptu horiengatik zer gastu espero diren aurreikusitako kontuetan eta egoera-orrietan, eta diru-lagun tzak emateko araudia eta prozedura zein diren.

f) Zorpetzeari buruzko eranskina, aurrekontu ekitaldiaren hasieran eta amaieran entitateari aurreikusten zaion zor finantzarioa jasoko duena, aurreikusitako interesen aldaketak eta ordainketak ere zehaztuta.

g) Langileen eranskina, entitatearen aurrekontu plantilla osatzen duten lanpostuen zerrenda jaso behar duena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera.

h) Ekitaldian zehar esleitu edo egingo diren inbertsioen eranskina, Lurzoruaren Ondare Publikokoak eta gainerakoak bereizita.

3.- Aurrekontu orokorrek 1. eta 2. apartatuetan aipatutako agiriak ez ezik, honako hauek ere izango dituzte:

a) Aurrekontu orokorren edukia azaltzen duen memoria. Bertan aztertu behar dira aurrekontu berriek aurrekoen aldean dituzten aldaketak, garrantzitsuenak nabarmenduz, haietako bakoitzaren edukia, eta aurrekontua exekutatzeke arauan jasota dauden gainerako neurriak.

b) Tokiko sektore publikoaren aurrekontu bateratua.

c) Aurrekontua exekutatzeke araua, non, besteak beste, nahitaez agertu behar baitira bermeak emateko eta zorpetzeke gehieneko mugak, entitate bakoitzari aplikatuko zaizkionak.

d) Itxitako azken ekitaldiko aurrekontu orokorren likidazioa eta lortutako gauzatze mailari buruzko memoria, eta urteko ekitaldiko gastu eta sarreraren exekuzio-egoerak, gutxienez lehen seihilekoa hartu behar dutenak.

e) Ekonomia-finantzazko txostena; bertan sarreraren eta aurreikusitako kreditu-eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak azaldu behar dira, eskatuko diren betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre

estos conceptos previstos en los estados y cuentas previsionales, así como la regulación aplicable y el procedimiento de concesión.

f) Un anexo de endeudamiento, con el nivel previsto de deuda financiera de la entidad al inicio y fin del ejercicio presupuestario, con detalle de las variaciones y pagos de intereses previstos.

g) Un anexo de personal, con la relación de los puestos que integren la plantilla presupuestaria de la entidad elaborado de acuerdo con la Ley de la Función Pública Vasca y disposiciones que la desarrollen.

h) Un anexo de las inversiones a adjudicar o realizar durante el ejercicio, diferenciando las referidas al Patrimonio Público del Suelo y el resto.

3.- Los Presupuestos Generales se integrarán por la documentación a que hacen referencia los apartados 1 y 2 anteriores, más los siguientes documentos:

a) Una memoria explicativa del contenido de los presupuestos generales en la que se recoja un análisis tanto de las modificaciones que presenten los presupuestos respecto de los anteriores, incidiendo en las más significativas, como del contenido de cada uno de ellos y de las demás medidas incluidas en la Norma de Ejecución Presupuestaria.

b) El Presupuesto consolidado del sector público local.

c) La Norma de Ejecución Presupuestaria, que entre otros extremos deberá contener necesariamente, los límites máximos de prestación de garantías y de endeudamiento, que serán de aplicación a cada una de las entidades.

d) La Liquidación de los Presupuestos Generales del último ejercicio cerrado, junto a una memoria del grado de ejecución alcanzado, y avance de la del corriente, referida al menos a seis meses del ejercicio.

e) Un informe económico-financiero, en el que se expongan las bases utilizadas para la evaluación de los ingresos y de las operaciones de crédito previstas, la suficiencia de los créditos para hacer frente a las obligaciones exigibles y

egiteko kredituak aski direla frogatu behar da, hau da, aurrekontua orekatuta dagoela. Txostenean, gainera, udalak konpromiso-kredituak finantzatzeko nahikoa baliabide dituen ere aztertu behar da, eta aztertu ere aparteko atal batean.

f) Aurrekontuko sarrera eta gastuen saldoa Kontuen Europako Sistemaren arauen arabera kalkulatuak finantzaketa ahalmen edo behararekin erlazionatzeko beharrezkoa den informazioa.

7. artikulua. Sarreraren orriak.

1.- Aurrekontuko sarreraren orrietan erakundeak kontzeptu guztien zioz aurrekontu ekitaldian likidatuko dituen finantza baliabideen zenbatekoa agertu behar da.

2.- Sarreraren orrietako zenbatekoak zenbatespenak izango dira, aurrekontua egitean zehatz-mehatz ezagutzen direnak izan ezik, horiek berariaz zehatz agertaraziko baitira.

3.- Enpresa-entitate publikoek eta sozietate publikoek hartzen dituzten kapital transferentziak eta diru-laguntzak beraien kapital eragiketarako finantzatzeko baliabideak izango dira eta beraien Behin-behineko Balantzean sartuko dira. Aurrekoa gorabehera, fondoak beste pertsona edo erakunde bati diru-laguntza eta kapital transferentziak emateko jasotzen direnean, sarrera gisa sartuko dira Galeren eta Irabazien Kontuan.

8. artikulua. Gastuen orriak.

Aurrekontuko gastuen orrietan hauek agertu behar dira:

a) Aurrekontu ekitaldiaren kargura aintzatetsi ahal diren gastuei aurre egiteko behar diren ordainketa kredituak.

b) Hainbat aurrekontu ekitalditan luzatuko diren ekintzak finantzatzeko hartu behar diren betebeharrak juridiko-ekonomikoei aurre egiteko konpromiso-kredituak, ordainketa kreditua zuzkituta dutenak, arau honetan ezarritakoaren arabera.

los gastos de funcionamiento de los servicios y, en consecuencia, la efectiva nivelación del Presupuesto. El informe analizará también, y de modo independiente, la suficiencia de los recursos municipales para financiar los créditos de compromiso.

f) La información precisa para relacionar el saldo resultante de los ingresos y gastos del presupuesto con la capacidad o necesidad de financiación calculada conforme a las normas del Sistema Europeo de Cuentas.

Artículo 7. Los estados de ingresos.

1.- Los estados de ingresos de los Presupuestos recogerán el importe de los recursos financieros que, por todos los conceptos, se prevean liquidar en el ejercicio presupuestario por las entidades a que se refieran aquéllos.

2.- Los importes incluidos en los estados de ingresos tendrán valor estimativo, salvo que su importe se conozca con exactitud en el momento de realizar el Presupuesto, en cuyo caso deberá consignarse específicamente y por su cuantía exacta.

3.- Las transferencias y subvenciones de capital que perciban las entidades públicas empresariales y Sociedades Públicas constituyen para los mismos recursos destinados a la financiación de operaciones de capital y formarán parte de su Balance Previsional. No obstante lo anterior, cuando los fondos percibidos lo hayan sido con la finalidad de conceder, a su vez, subvenciones y transferencias de capital a otras personas o Entes, se incluirán como ingresos en su Cuenta de Pérdidas y Ganancias.

Artículo 8. Los estados de gastos.

Los estados de gastos de los Presupuestos respectivos recogerán:

a) Los créditos de pago necesarios para atender los gastos susceptibles de ser reconocidos con cargo al ejercicio presupuestario.

b) Los créditos de compromiso destinados a hacer frente a las obligaciones jurídico-económicas que hayan de contraerse para la financiación de acciones cuya ejecución deba prolongarse a ejercicios presupuestarios posteriores a aquél en que tales créditos se aprueben, y a cuyo efecto esté dotado el

correspondiente crédito de pago, todo ello en los términos establecidos por la presente Norma Foral.

9. artikulua. Aurrekontuak Gauzatzeko Araua.

Toki erakundeen aurrekontu orokorretan Aurrekontuak Gauzatzeko Araua egon behar da; bertan aurrekontu arloko xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara moldatu behar dira eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egingo dira: gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokietsi eta komeniesten diren ohartarazpenak ezarriko dira. Ekonomi administrazioari buruzko legeria ezin alda daiteke, ez eta aurrekonturako aurreikusitakoa ez beste prozedura eta formalitate bereziak behar dituzten administrazio manuak ezarri ere.

Artículo 9. Norma de Ejecución Presupuestaria.

Los Presupuestos Generales de las entidades locales incluirán una Norma de Ejecución Presupuestaria que contendrá la adaptación de las disposiciones generales en materia presupuestaria a la organización y circunstancias de la propia entidad, así como aquéllas otras necesarias para su acertada gestión, estableciendo cuantas prevenciones se consideren oportunas y convenientes para la mejor realización de los gastos y recaudación de los recursos, sin que pueda modificar lo legislado para la administración económica, ni comprender preceptos de orden administrativo que requieran legalmente procedimientos y formalidades específicas distintas de lo previsto para el Presupuesto.

III. KAPITULUA

Aurrekontu orokorren egitura

10. artikulua. Arau orokorrak.

1.- Aurrekontu orokorren egitura sarrera eta gastuen izaera ekonomikoaren eta horien bidez lortu nahi diren helburu edo xedeen araberakoa izango da, jarraiko artikuluetan ezarriko diren irizpideei jarraituz.

2.- Toki erakundeek gastu eta sarrerak euren egitura kontuan hartuz sailkatu ahal izango dituzte, antolaketarako araudi edo dekretuen arabera.

11. artikulua. Egitura ekonomikoa.

1.- Aurrekontuetako sarrera eta gastuen orriak aurkezteko, haien izaera ekonomikoan oinarrituta zehaztuko den kontabilitate egiturari jarraituko zaio.

Gastuen egoera-orrien egitura ekonomikoan eragiketa arruntetarako kredituak, kapital eragiketarako kredituak eta finantza-eragiketarako kredituak bereiziko dira.

Eragiketa arruntetarako kredituen barruan

CAPITULO III

Estructura de los Presupuestos generales

Artículo 10. Normas generales.

1.- La estructura de los Presupuestos generales atenderá a la naturaleza económica de los ingresos y de los gastos, y a las finalidades u objetivos que con estos últimos se propongan conseguir, siguiendo los criterios que se establecen en artículos posteriores.

2.- Las entidades locales podrán clasificar los gastos e ingresos atendiendo a su propia estructura de acuerdo con sus Reglamentos o Decretos de Organización.

Artículo 11. Estructura económica.

1.- Los estados de ingresos y gastos contenidos en los Presupuestos se presentarán de acuerdo con una estructura contable determinada en base a la naturaleza económica de los mismos.

La estructura económica de los estados de gastos distinguirá entre créditos para operaciones corrientes, créditos para operaciones de capital y créditos para operaciones financieras.

Los créditos para operaciones corrientes

sartuko dira pertsonalekoak, ondasun arrunt eta zerbitzuetakoa, finantza gastuak, transferentzia eta diru-laguntza arruntak, eta kreditu globala eta bestelako ezustekoak.

Kapital eragiketetarako kredituetan inbertsio errealerako kredituak eta kapital transferentziak eta kapital diru-laguntzak bereiziko dira.

Finantza eragiketetarako kredituen barruan finantza aktibo eta pasiboak sartuko dira.

Sarreraren egoera-orriaren egitura ekonomikoan eragiketa arruntengatik, kapital eragiketengatik eta finantza eragiketengatik egindako aurreikuspenak bereiziko dira.

Eragiketa arruntengatik egiten diren aurreikuspenen barruan sartuko dira zuzeneko zergak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak, transferentzia eta diru-laguntza arruntak eta ondare sarrerak.

Kapital eragiketengatik egiten diren aurreikuspenetan bereiziko dira inbertsio errealen besterentzeak eta kapital transferentzia eta diru-laguntzak.

Finantza eragiketengatik egiten diren aurreikuspenetan finantza aktibo eta pasiboak sartuko dira.

2.- Aurreikusitako balantzearen kontabilitate egitura, aurreikusitako galera-irabazien kontuarena, eta ondare garbian aurreikusitako aldaketen egoera-orriarena, kasuan kasuko entitateak aplikagarri dituen kontabilitate arauetara egokituko dira.

12. artikulua. Programakako egitura.

1.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren organismo autonomoen aurrekontuko ordainketa-kredituak programa taldeka sailkatuta aurkeztuko dira, eta behar denean programak eta azpiprogramak ere bai.

2.- Programa talde bakoitzean lortu nahi dituen helburuei, ekitaldian beharko diren giza eta finantza baliabideei, egin beharreko jardueren eta hauen burutzapenaren arduradunei buruzko informazioa bildu behar da.

3.- Programa talde bakoitzaren helburuak jarraitzeko moduan zehaztuko dira, ahal

incluirán los de personal, los de bienes corrientes y servicios, los gastos financieros, las transferencias y subvenciones corrientes y el crédito global y otros imprevistos.

Los créditos para operaciones de capital distinguirán los de inversiones reales y las transferencias y subvenciones de capital.

Los créditos para operaciones financieras incluirán los de activos y pasivos financieros.

La estructura económica del estado de ingresos distinguirá las previsiones por operaciones corrientes, por operaciones de capital y por operaciones financieras.

Las previsiones por operaciones corrientes incluirán los impuestos directos, impuestos indirectos, tasas y otros ingresos, las transferencias y subvenciones corrientes y los ingresos patrimoniales.

Las previsiones por operaciones de capital distinguirán las enajenaciones de inversiones reales y las transferencias y subvenciones de capital.

Las previsiones por operaciones financieras incluirán los activos y pasivos financieros.

2.- La estructura contable del balance previsional, la cuenta de pérdidas y ganancias previsional y el estado previsional de cambios en el patrimonio neto se adaptará a las normas de contabilidad aplicables a la entidad correspondiente.

Artículo 12. Estructura por programas.

1.- Los créditos de pago integrantes del presupuesto de la administración de la entidad local y de sus organismos autónomos se presentarán clasificados por grupos de programa, y, en su caso, programas y subprogramas.

2.- Cada grupo de programa recogerá la información relativa a los objetivos por él perseguidos, medios humanos y financieros necesarios en el ejercicio, actividades a llevar a cabo y responsables de su ejecución.

3.- Los objetivos perseguidos por cada grupo de programa se concretarán, si es posible, en

denean.

4.- Programa talde bakoitzean, behar denean, burutzapenaren bidez lortu uste diren eta aurrekontuko sarreraren orrian ageri diren sarrerei buruzko informazioa bilduko da.

5.- Toki erakundearen administrazioaren eta organismo autonomoen aurrekontuko konpromiso-kredituak beraiei dagozkien ordainketa-kredituei aipamena behar bezala eginda aurkeztuko dira, ordainketa-kreditu horiek sartuta dauden programa taldeen barruan.

13. artikulua. Aurrekontu egituraren mailak.

1.- Euskal arlo publikoa bateratzeko arauak kalterik egin gabe, foru arau hau garatzeko ematen direnetan programa bidezko maila ezberdinak ezarriko dira, ordainketa- eta konpromiso- kredituak zehazten den antolaketa-unitate bakoitzak egin beharreko jardueren arabera elkartzeko.

2.- Sailkapen ekonomikoak hiru maila izango ditu gutxienez: lehenengoa kapitulua, bigarrena artikulua eta hirugarrena kontzeptua.

3.- Aurrekontu-aplikazioa, zeinen kopuru adierazpena aurrekontu-kreditua baita, programa taldekako egiturak eta egitura ekonomikoak definituko dute, gutxienez, programa taldeen mailan eta kontzeptuen mailan, hurrenez hurren.

Gastuen kontabilitatea aurrekontu-aplikazioaren gainean egingo da eta kontuhartze-kontrola foru arau honetako 19.2 artikuluaaren arabera zehaztuko den lotura mailaren gainean.

4.- Sarrerak kontzeptu mailan kontabilizatu eta kontrolatuko dira, gutxienez.

IV. KAPITULUA

Aurrekontu orokorren gertuketa eta onespina

14. artikulua. Gertutu eta onesteko eskumena.

términos susceptibles de seguimiento.

4.- Cada grupo de programa incluirá, en su caso, información de los ingresos que se prevea deriven de su realización y que estén recogidos en el estado de ingresos del respectivo Presupuesto.

5.- Los créditos de compromiso del presupuesto de la administración de la entidad local y de sus organismos autónomos se presentarán debidamente referenciados a los créditos de pago correspondientes a aquéllos, dentro de los grupos de programas en que dichos créditos de pago estén incluidos.

Artículo 13. Niveles de estructura presupuestaria.

1.- Sin perjuicio de las normas sobre consolidación del Sector Público Vasco, en las de desarrollo de esta Norma Foral se establecerán distintos niveles por programas que agruparán los créditos de pago y de compromiso según la naturaleza de las actividades a desarrollar por cada unidad organizativa que se determine.

2.- La clasificación económica constará como mínimo de tres niveles, el primero relativo al capítulo, el segundo al artículo y el tercero al concepto.

3.- La aplicación presupuestaria, cuya expresión cifrada constituye el crédito presupuestario, vendrá definida, al menos por la conjunción de las estructuras por programas y económica, a nivel de grupo de programa y concepto respectivamente.

La contabilidad de los gastos se realizará sobre la aplicación presupuestaria y el control interventor sobre el nivel de vinculación determinado conforme al artículo 19.2 de la presente Norma Foral.

4.- La contabilización y el control de los ingresos será realizado, como mínimo, a nivel de concepto.

CAPITULO IV

Elaboración y aprobación de los Presupuestos generales

Artículo 14. Competencia de elaboración y aprobación.

1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontua haren buruak prestatuko du; horretarako, hurrengo ekitaldirako aurrekontua egiteko behar diren gidalerro ekonomikoak eman ahal ditu.

2.- Organismo autonomo bakoitzaren aurrekontua, orokorraren osagai dena, hasieran organo eskudunak proposatuko duena, atxikita dagoen toki erakundeko buruari bidaliko zaio irailaren 30a baino lehen.

3.- Enpresa-entitate publiko eta sozietate publikoek udal toki erakundeko buruari 6. artikuluan ezarritako agiriak bidali behar dizkiote irailaren 30a baino lehen. Kontabilitate orri horiek oinarri hartuta, toki erakundeko buruak administrazio aurrekontuaren egitura ekonomikoari dagozkionak prestatuko ditu, artikuluan mailan gutxienez.

4.- Aurreko idatz-zatietan aipatutako aurrekontuak eta aurreikuspen orriak oinarritzat hartuta, toki erakundeko buruak aurrekontu orokorra prestatuko du eta, Kontuhartzaitzak txostena eman ondoren, arauzko tramitazioa urriaren 15a baino lehen eginda, 6. artikuluan zehaztutako eranskinekin eta agiriekin bidaliko dio udalbatzari, hark onetsi dezan edo zuzen dezan edo itzul dezan.

5.- Onespenez erabakia bakarra izango da eta bertan aurrekontu orokorreko aurrekontuak xehekatu behar dira; haiek ezin dira onetsi bereiz.

6.- Aurrekontu orokorreko aurrekontu bakoitza hasierako mentsik gabe onetsi behar da.

Nolanahi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira.

15. artikulua. Ondorengo tramiteak.

1.- Aurrekontu orokorra hasieran onetsita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari

1.- El presupuesto de la administración de la entidad local será formado por su presidente, pudiendo, a tal efecto, dictar las directrices económicas que resulten necesarias sobre la elaboración de los presupuestos para el próximo ejercicio.

2.- El presupuesto de cada uno de los organismos autónomos integrantes del general, propuesto inicialmente por el órgano competente de los mismos, será remitido al Presidente de la entidad local de la que dependan antes del 30 de septiembre de cada año.

3.- Las entidades públicas empresariales y las sociedades públicas remitirán al presidente de la entidad local antes del 30 de septiembre de cada año, la documentación que se establece en el artículo 6. A partir de estos estados contables, el presidente de la entidad local formará los correspondientes a la estructura económica del presupuesto administrativo, a nivel de artículo como mínimo.

4.- Sobre la base de los Presupuestos y estados de previsión a que se refieren los apartados anteriores el presidente de la entidad local formará el presupuesto general y lo remitirá informado por la Intervención con todos los anexos y documentación detallados en el artículo 6, previa su tramitación reglamentaria con anterioridad al 15 de octubre, al Pleno de la Corporación para su aprobación, enmienda o devolución.

5.- El acuerdo de aprobación, que será único, habrá de detallar los Presupuestos que integran el General, no pudiendo aprobarse ninguno de ellos separadamente.

6.- Cada uno de los presupuestos que integran el Presupuesto General deberá aprobarse sin déficit inicial.

En todo caso, los ingresos por operaciones corrientes deberán ser, como mínimo, iguales a los gastos de igual naturaleza más los gastos de amortización por endeudamiento.

Artículo 15. Trámites posteriores.

1.- Aprobado inicialmente el Presupuesto General, se expondrá al público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por quince días, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el

erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsitzat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

2.- Udalbatzak aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen onetsi beharko du behin betiko aurrekontu orokorra.

3.- Aurrekontu orokorra behin betiko onetsita, udalaren aldizkari ofizialean argitaratuko da, halakorik badu, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere bai, aurrekontuak kapituluka laburtuta.

4.- Behin betiko onetsi ondoren, aurrekontu orokorraren kopia bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta gero hark administrazio eskudunei bidaliko die.

5.- Aurrekontuaren eta beraren aldaketen kopia jendearen esku egon beharko da, informazio gisa, behin betiko onesten denetik ekitaldia amaitu arte.

16. artikulua. Indarrean jartzea.

Aurrekontua berari dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusi bezala argitaratu ondoren.

17. artikulua. Interesatuak.

1.- 15. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, hauexek hartuko dira interesatutzat:

a) Erakundea dagoen lurraldeko biztanleak.

b) Erakundearen lurraldean bizi ez badira ere, zuzenean ukituta daudenak.

c) Elkargo ofizialak, ganbara ofizialak, sindikatuak, elkarteak eta lanbide nahiz ekonomia eta auzo interesak jagoteko legez eratuta dauden gainerako erakundeak, beraiei dagozkien defentsan dihardutenean.

2.- Aurrekontuaren aurkako erreklamazioak arrazoi hauengatik soilik aurkeztu ahal izango dira:

Pleno. El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un mes para resolverlas.

2.- La aprobación definitiva del Presupuesto General por el Pleno de la Corporación habrá de realizarse antes del día 31 de diciembre del año anterior al del ejercicio en que debe aplicarse.

3.- El Presupuesto General, definitivamente aprobado, será insertado en el Boletín Oficial de la Corporación, si lo tuviere y, resumido por capítulos de cada uno de los presupuestos que lo integran, en el del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4.- Del Presupuesto General, definitivamente aprobado, se remitirá copia a la Diputación Foral, que será la encargada de enviarlo a las Administraciones competentes.

5.- Copia del Presupuesto y de sus modificaciones deberá hallarse a disposición del público, a efectos informativos, desde su aprobación definitiva hasta la finalización del ejercicio.

Artículo 16. Entrada en vigor.

El Presupuesto entrará en vigor, en el ejercicio correspondiente, una vez publicado en la forma prevista en el apartado 3 del artículo anterior.

Artículo 17. Interesados.

1.- A los efectos de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 15, tendrán la consideración de interesados:

a) Los habitantes en el territorio de la respectiva entidad.

b) Los que resulten directamente afectados, aunque no habiten en el territorio de la entidad.

c) Los colegios oficiales, cámaras oficiales, sindicatos, asociaciones y demás entidades legalmente constituidas para velar por los intereses profesionales o económicos y vecinales, cuando actúen en defensa de los que les son propios.

2.- Únicamente podrán entablarse reclamaciones contra el Presupuesto:

a) Gertuketa eta onespena foru arau honetan ezarritako izapideei lotuz ez egitea.

b) Legezko manua edo legebidezko beste edozein titulu dela bide erakundeari eska dakizkikeen betebeharrak betetzeko behar den kreditua alde batera uztea.

c) Sarrerak ez izatea nahiko aurrekontuko gastuei aurre egiteko, edo gastuak ez izatea nahiko beharrianetarako.

18. artikulua. Errekurtsoak.

1.- Aurrekontuaren behin betiko onespenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean, aginpide horri buruzko arauetan ezarritako moduan eta epeetan.

2.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, aurkapena aurrekontu galgaketari lotu edo dagokionean, txostena eman beharko du errekurtsoa ebatzi baino lehen.

3.- Errekurtsoak jartzeak ez du berez etengo udalak behin betiko onetsitako aurrekontuaren aplikazioa.

V. KAPITULUA

Aurrekontu-kredituen araubide orokorra eta aldaketen araubidea

19. artikulua. Arau orokorrak.

1.- Aurrekontu-kredituak erakundearen aurrekontu orokorrean edo behin betiko onetsitako haren aldaketen baimendutako helburuetarako soilik erabiliko dira.

2.- Aurrekontu-kredituak muga eta lotura izaerakoak dira. Lotura mailak urteko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarriko dira eta, beren beregi zehazten ez denean, honako hauek izango dira:

- Programa taldea eta kontzeptua, gastu arruntan ziozko eta kapital transferentzia eta diru-laguntzen, ondasun-inbertsioen eta finantza aktiboen aldaketen ziozko gastuetan.

a) Por no haberse ajustado su elaboración y aprobación a los trámites establecidos en esta Norma Foral.

b) Por omitir el crédito necesario para el cumplimiento de obligaciones exigibles a la entidad, en virtud de precepto legal o de cualquier otro título legítimo.

c) Por ser de manifiesta insuficiencia los ingresos con relación a los gastos presupuestados, o bien éstos respecto a las necesidades para las que estén previstos.

Artículo 18. Recursos.

1.- Contra la aprobación definitiva del Presupuesto podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en la forma y plazos que establecen las normas de dicha jurisdicción.

2.- El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas deberá informar previamente a la resolución del recurso cuando la impugnación afecte o se refiera a la nivelación presupuestaria.

3.- La interposición de recursos no suspenderá por sí sola la aplicación del Presupuesto definitivamente aprobado por la Corporación.

CAPITULO V

Régimen general de los créditos presupuestarios y régimen de modificaciones

Artículo 19. Normas generales.

1.- Los créditos presupuestarios se destinarán exclusivamente a la finalidad específica para la cual hayan sido autorizados en el Presupuesto General de la entidad o por sus modificaciones debidamente aprobadas.

2.- Los créditos presupuestarios tienen carácter limitativo y vinculante. Los niveles de vinculación serán establecidos por la Norma de Ejecución Presupuestaria anual y, en ausencia de determinación expresa, serán los siguientes:

- Grupo de programa y concepto, en los gastos relativos a transferencias y subvenciones por gastos corrientes y de capital, inversiones reales y variación de activos financieros.

- Programa taldea eta kapitulua, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuetan, finantza-gastuetan eta finantza pasiboen aldaketen ziozko gastuetan.

- Kapitulua, langileen gastuetan.

3.- Toki administrazioak ematen dituen erabaki, xedapen, ebazpen eta egintzek, beraien bitartez gastuen orrian baimendutako muga izaerako kredituen zenbatekoa baino gehiagoko zenbatekoko gastu-konpromisoak eskuratu nahi direnean, zuzenbide osoko baliogabetasuna izango dute, sortzen diren erantzukizunei kalte egin gabe.

20. artikulua. Ordainketa-kredituak.

1.- Aurrekontuetako gastuen orrietako ordainketa-kredituak:

a) Aurrekontuek eta foru arau honetako manuen arabera egindako aldagetek baimendutako helburuak betetzeko aplikatuko dira.

